

Ama eskolako helburu zonbait

ONGI ETORRIA

Haurra gelara sartzean ongi, kontent senditzea.
Haurra sartzerakoan taldean leku bat baduela adieraztea.
Haurrari erakasleak denbora pixkat eskaintzen diola senditzea.
Joko librotan, nahi duen jokoarekin jostatzea, nahi duena egiten duela senditzea (gero aginduak betetzeko errestasun haundiago bat izanen baitu)
Beste haurrekin nahi duen harremana libreki egitea.

ELKARRETARATZEA

Arduraduna : Haur bakotxa egun batez arduraduna da.

Ardurak hartzen joitea.
Egun batez "protagonista" izaitzea. Leku bat baduela ohartzea.
Ebaluatzea.

EGUTEGIA

Zenbakiak eta hitzak behatzen eta ezagutzen joitea (irakurketaren zentzua, zenbakiak bisualki nola diren ikustea)
Zoin egunetan eskola baden eta zoin egunetan ez den jakitea.
Astearen egunak ezagutzen joitea.

ELKARRIZKETA

Haurrak hitz egiteko toki bat izaitzea.
Aho hizkuntza landu. Hizkuntza aberastu eta gaizki erranak xuxendu.
Galderen bidez deklinabideak lantzea.
Iraganaz ohartzea. Atzo zer egin zuten adieraztea.
Lagunak entzuten ikastea.

KANTUAK eta OLERKIAK

Memoria landu kantuak gogoz ikasiz.
Belarria egitea doinu eta hizkuntzan.
Olerkien esku trebezia garatu.

Kantatzeko eta errezitatzeko jarrera landu.

JOKO LIBROA

Autonomia garatu.
Gelako espazioan ongi mugitzea jakitea.
Bere beharrak ikusi eta asetzea.
Libroki nahi dutena esperimentatzea.

KOMUNETARA JOAITEA

Autonomia garatu : galtzak bakarrik jautsi eta eman.
Beste hurrekin soziabilizatzea : bere aldiaren beha ikasten egoiten.
Beste espazio batean moldatzen.
Laguntza galdegiten ikastea.

GOSARIA

Autonomia garatu
Soziabilizazio ohiturak landu : « Zer nahi duzu ? » galdetzea, « Milesker » erantzutea.
Ardura bat izaitea eta betetzea.
Ongi jartzea, gehiago nahi denean galdegitea, paperak zikin untzira botatzea...

IPUINA

Hizkuntza landu, ipuinak entzun.
Ipuinaren ulermena jorratzea.
Ipuinaren sekuentziak eta liburuaren egitura lantzea.
Ipuinari doazkion hiztegia eta ezaugarriak lantzea.

EGUNAREN BILANA

Egunean egin dena berrikustea denboran hobeki kokatzeko.
Agurra egitea eta bihar zer egun den gogoraztea denbora landuz.